

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

676

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 3koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako pertsona onuradunen zerrenda argitaratzen baita. Agindu horren bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako deialdia egiten da, 2022. ekitaldirako, martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 4ko Aginduaren bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako deialdia egin zen, 2022. ekitaldirako, martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren ebazpen bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako martxoaren 24ko 45/200 Dekretuak 14.artikuluaren xedatutakoa betez, esleitu egin dira eskatutako laguntzak.

Bada, pertsona onuradunei ebazpenak jakinarazi ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluan, bigarren paragrafoan, 2. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorrita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitara ematea, denek jakin dezaten, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda (ebazpen honen eranskinean jasota dago). Agindu horren bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako deialdia egiten da, 2022. ekitaldirako, martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 3a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.

ERANSKINA

Erreferentzia	Sozietatearen izena	Proiektua	Dirulaguntza (eurotan)
00001-ATT2022	Bodegas Gómez de Segura Ibañez SL	Sasoikako langileentzako higiezinaren ekipamendua.	1.002,62
00002-ATT2022	Aguraingo Udala	Sasoikako langileentzako aterpetxea egokitzea.	5.288,14
00003-ATT2022	Lopez Aguirrezabal SC	Sasoikako langileentzako aterpetxea barrutik eraberritzea.	20.000,00
00004-ATT2022	Ribartayo SC	Sasoikako langileentzako ostaturako pintura eta ekipamendua.	2.307,90
00005-ATT2022	Lezako Udala	Sasoikako langileentzako ostatuan hobekuntzak.	11.708,64